

ETNO-IPUIN ETA ESAUNDEN BILKETA

Oiartzun, 1994-12-30

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Bide bat zelangoa den jakiteko, norbera bertatik ibililita eta ibiltealakorik ez dago egur eskarmentadua sugin ona izaten baita.

Nire neure Etno-ipuina eta esaunden bilketa bidearen hasikerako urtekera On Jose Migel Barandiaranek emon zidan, han Derioko Seminarioan, Ander Manterolak Bizkaiko ETNIKER taldean sartu ninduean.

Derioko Seminarioko Labayru-liburutegian egiten genituen bilerak Bizkaiko Etniker-kideok On Jose Migel Barandiaran batzarkide eta maixu genuela.

Handik lasterrera, Euskal Herriko Etniker talde guztiak bildu ginen Urkiolan eta orduan maixu bi aurkeztu zizkigun Ander Manterolak: On Jose Migel Barandiaran eta Don Manuel Lekuona.

Egurdarteko beharlekua amaitu eta bazkaltzeko plantatu ginenean, hauxe esan zidan Ander Manterolak mahai-buruko maixu nagusi biei adi:

—Aikorzan gure maixuak!

Eta halaxe zen izan be. Pozik zer nengoen ni maixu nagusi bion aurrean! Ez zen gutxiagorako.

Nik neuk, gehien bat, On Jose Migelen bidetik egin dut behar, baina Don Manuelen irakatsiak ahaztu barik.

On Jose Migelek sarri esaten zigun berari Wunt irakasleak emandako gomendioa, hauxe hain zuzen: “Zeure herria aztertu nahi baduzu, zeure herririk hara egin behar duzu”.

Nik neuk be beste hainbeste egin nuen. Nire neure lurraldera abiatu nintzen, jakina, Gorbeia aldera, nire neure ikerketak egiten.

Nire ipuina eta esaunden bilketa era honetara hasi nuen:

—Nik, Ander Manterolari kontatu nizkion nire auzoko Simon Goyoagak (g.b.) umetan kontaktutako ipuina batzuk. Horretara badinost Anderrek:

—Hi, mutil, horiek ipuin horiek mitologiakoak dituk, On Jose Migel ibili, ibili duk Gorbeia inguruan, baina ez dizkik horiek ipuinok bildu! Zergatik ez dizkiok grabatzen Simoni eta transkribitu, orduan *ETNIKER* aldizkarian argitaratu?

Orpoetan har barik joan nintzen beharleku horretara eta egin be egin Ander maixuaren esana.

Harrezkero, hauetan hogeitau urteotan ehundaka ipuin edo eta esaunda bildu ditut eta euretariko batzuk argitaratu be bai *Etniker* aldizkarian eta neure Dok-torego Tesian, hau da, “Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistiko”n.

Ipuin eta esaunda bilketa hau, Zeberíon hasi nuen, nire neure herrian. Baina, handik, hortik hemendik, Gorbeia inguruko herrietara ere abiatu nintzen agortezineko ipuin-iturri horretatik ahal denik eta gehien hartzeko.

Arakutatuko herriak hauexek dira: Zeberío, Orozko, Ugao, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Zaratamo, Galdakao, Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Villaro, Zeanuri, Dima, Otxandíano eta lurralde aparteko lez, Gorbeia bertako artzainen bizilekua.

* * *

Metodologia aldetik, grabazio-tresna egokiaz gain, berriemaileagan Ebo-kazioa lortzea da derrigorrezkoa emaitza onak lortzeko.

Gure adinekoek asko eta asko dakite, baina sarritan, ebokazio faltaren eraginez zer kontatu ez dakitela aurkitzen dira.

Horretarako, lehenengo eta behin, Giro lasai eta ona aurkitu edo egin behar da eta gero hasi galderantzunetan.

Nik neuk, On Jose Migel Barandiaranek etnografiarako egindako inkesta erabiltzen dut hasteko, hots, “Guia para una encuesta etnografica” eta gero nire neure intuiziozkoak erabili tokian tokiko egoera ikusiaz.

Esate baterako, “Tabu” izan diren gaiei buruzko galderak ezin dira edozeinen aurrean egin, errespetoagatik baino ez bada ere. Hauelango gaietarako berri-emaile egoki edo konfiantzazkoak aurkitu behar dira bilketa zertarako den adieraziz.

Behin ipuin edo esaundok magnetifonoz jasoz gero, transkribitu egiten ditut, baina zehatz-zehatz, fonologia mailan, eta behar bada, fonetikako oharrak jarritz zehaztasun bidean.

Gehiago oraindik. Euskal Herria euskalki, azpieuskalki eta aldakiz beterik dagoenez, etno-testu huts-hutsak emonez gero, euskeraren aldaki hori ezagutzen ez dutenentzat gatz egiten da ulertzea, euren belarriak euskera mota ho-

rretara ohitu barik daudelako eta irakurrita ere ezer gutxi ulertuko luketelako. Horregatik, nik neuk transkripzio fonologikoaren ondoan, jaso den euskalkiko eredu literario-etimologikoa ere emoten dut, era horretara, hobeto ulertu eta aberasgarri izan dadin.

Behin horraz gero, eta euskaldunon munduaren berri haragora ere eroateko, laburpen gisa baino ez bada ere, erdaraz ere ematen dut, alde batetik, On Jose Migel Barandiaran eta R.M. Azkuen antzera eta bestetik, Julio Camarenak berak emondako aholkua jarraituz.

Era honetara lan eginez gero, ikerketa interdisziplinarraren barruan, batez be, arlo bi hauetarako balio du nire neure bilketak: Bata, etnografiarako eta bestea linguistikarako.

Etnografiako lan zehatz eta fidagarri bat behar beharrezkoa da horren ondorengo ikerketa linguistiko oinarrizko bat egiteko. Iturriko ura garbia eta den-den bezalakoa ez bada, handik edaten duena ere kutsaturik agertuko da eta datozenentzat ere kutsatze bide bat litzateke.

Ipuin eta esaunda bilketa arlora berrien berriz etorriz, eta ia hogeitau urteotako lana laburbilduz, hona hemen besteak beste, Gorbeia inguruko herrietan aurkitutako ipuin gaien sailkapen tematikoa:

Anbotoko Señorea; Jentilak; Lamiñak; Sorginak; Deabrua; Parte Txarrekoak; Arimak; Didaktiko-Moralak; Animaliak; Landareak; Sexu-kutsukoak; Eguzkia; Ospakizunak; Barregarriak; Bizikera zaharrak; Sineskerak; Eleiz-kutsukoak; Azeguna; Igarkizunak; Lapurrenak; Superstizioak; Gertakizunak; Kondenatuak; Superlegor koba; Entzuteak; Istorioak.

Euskera bizi honen altxor honetan, hainbat eta hainbat gauza eder aurki daiteke etno-linguistika arlo bikoitz honetan.

Denak aipatzea luzeegia litzatekeenez, hiztegiaren alorra aipatu nahi nuke literatura idatziak ez baitu jaso euskeraren izate osoa.

Argitaratu berri dudan *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* liburuan, inongo hiztegitan agertzen ez diren berrehun hitzetik gora jaso ahal izan ditut.

Gauzak honela, galdera sakon bat datorkit ateari josten bihotzaren erdi-erdira. Zein? eta hauxe: Zer egin literatura idatzian agertzen ez diren ahoko berba hauekin? Nire ustez, hartu dauden-daudenetik, jakina, beren beregi etno-testurik hara, eta sartu hiztegi zein beste edozein idaztitan, era horretara aberastuko dugulako gure etorkizuneko euskara.

Hau guztiau esan ondoren, zer hobea gorik Gorbeia inguruan jasotako ipuin bat, etno-testu fonologiko, bizkaiera literario eta batuan emotea baino.

ITARGIA, EGUZKIA ETA MUNDUA

Ipuin edo esaunda hau, Zeberioeko Patxi Etxebarriari entzuna da. (*Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* neure liburutik hartua). Nik neuk egindako itauna hauxe zen: Nondikakoak dira ilargiaren ilunguneak?

Aikomen erantzuna:

(Transkripzio fonologikoan)

Aldi beten, nosik ona estakigule, eguskie t'itargie andra-gixonak i sirean, da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiñotzo eguskiek arrokeris beterik:

Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago!

Bai, ikusiko etxoapa!

Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero!

Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak etxopatio esetarako!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri eta erreunes bete bekokitik okotzeranoko gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aiturea baño estao itargieri idergi betea danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi yakon sein eguskiek e bearrestanen bat in. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon mirue arrari letxe eta odolak ur eiteko gitxien faltan.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan.

Itargien arnasestue eta magalotza iños ikusi bakoak sirean eta bere burue olan ikusirik, badiño berekitan: gesubeten gañetu bea yatak eguski armin kokino ori, baya etxok o berea ingo lelengoa!

Eguskie orpoetan ar bari(k)tx(y)oakon atzerikara eta ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxau inik aukela, estotzo itargie e bere burua gordetan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunetxoan egunek etorri, itargie atzerikara ikustauen eta badiño bere artean: burue non gorde yostan baño estok orrek andra galerorrek!

Orduen, atzera in esin auen les, arin eragoyon eragon be itargie barriro atzerikara kuxetako, d'orretarako denodu gustiegas eta inisitue baño arinago ibilite be, beste ogeta sorki egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde, batepaki non!...

Gaur be undiño or yabikus eguski-itargiok, bata bestearen atzean, egunes beroa ta gaubes iñontza dariola.

(Gaurko bizkaiera literarioan)

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziran, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz helduko dagoala, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

Ikusten dona Mundua, egunean baino egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez joat ba!

Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker dona gero!

Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez jok balio ezertarako!

Hori entzun ba eutson ba ze, haserretuten jako eguzkia, hartzen dau esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi-aurpegira bota eutsozan txingerrok itargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz haiek erreunak, aditutea baino ez dago itargiari idergi betea danean.

Baina, eguzkia hain ikusten eban berde, bildursartu eginda egoan itargia eta karran hasi jakon zein eguzkiak behar ez danaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu jakon mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gitxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, idergi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak itargia koiuten.

Itargiaren arnastua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziran eta bere burua holan ikusirik badino berekitan:

gesu baten gainetu bear jatak eguzki armin kokorio hori, baina ez jok berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik joakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik eukala, ez deutso itargiak bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak artu eutsozan eta egunak joan egunak etorri, itargia atzerik hara ikusten eban eta badino bere artean: burua non gorde deustan baino ez dok horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin eban lez, arin eragoion eragon be itargia barriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita be, beste hogeita zortzi egun behar izan ebazan, baina itargiak ostera be bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur be oraindino hor dabilkuz eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauetz inontza dariola.

(Euskara Batuan)

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta ilargia andra-gizonak ei ziren, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz helduko dagoela, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

Ikusten duna Mundua, egunean baino egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez diat ba!

Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker duna gero!

Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez dik balio ezertarako!

Hori entzun ba zion ba ze, haserretzen zaio eguzkia, hartzen ditu esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi-aurpegira bota zizkion txingerrok ilargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Oraitxe eta oraintxe ere ezagun ditu haiek erreunak, aditzea baino ez dago ilargiari ilargi betearen denean.

Baina, eguzkia hain ikusten zuen berde, beldursartu eginda zegoen ilargia eta karreran hasi zitzaion zein eguzkiak behar ez denaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu zitzaion mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gutxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, ilargi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak ilargia harrapatzen.

Ilargiaren arnasestua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziren eta bere burua honela ikusirik badino berekitan: gesu baten gainetu behar zaidak eguzki armin kokorio hori, baina ez dik berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik zihoakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik zeukala, ez dio ilargiak bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu zizkion eta egunak joan egunak etorri, ilargia atzerik hara ikusten zuen eta badino bere artean: burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin zuen lez, arin eragoion eragon ere ilargia berriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita ere, beste hogeita zortzi egun behar izan zituen; baina ilargiak osteraren bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur ere oraindino hor dabilzkigu eguzki-ilargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gaez inontza dariola.

* * *

Aikomen ba, Gorbeia inguruko ipuin edo esaunda bat etorkizuneko euskerara bideratuta.

Lehenago aipatu dudan helburu bikoitza gogoraturaz, aikomenzan disziplina bakoitzari dagozkion bitargi batzuk:

Etnografia ikuspuntutik, ilargiaren ilunguneak azaltzen dira alde batetik eta hilabetearen zikloa bestetik, herri-jakituria edo mito bidez, jakina.

Linguistika ikuspuntutik, begira ipuintxo honetan bakarrik, zenbat elementu interesgarri agertzen den etorkizuneko euskeraren aberasgarri.

Batzuk bakarrik aipatzearen, horra hor: lexikoa(gaulendia, sartzamandia, inontza, itargi, bildursartua, eragon, armin, kokorio, etab. Iuze bat).

Aditz jokoa: hitano-ko femeninoa -NA morfema eta guzti egiten da.

-ETAN atzizkiaren erabilera ugaria da: (gordetan, kantetan, olgetan...).

Esaldiak: esaldi bereziak agertzen dira: esaterako: "...bildursartu eginda zegoen itargia eta karran hasi zitzaion ZEIN eguzkiak behar ez denaren bat egin", "Burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek", etab.

Esandako guztia borobilduz, bizirik dugun euskera ederra behar den lez jaso, aztertu eta etorkizunera bideratzen ez badugu, ezingo dugu bete herri esaera hau:

"gurasoak dena dio zor umeari".

Kasu honetan, guk geuk, etorkizunari.